

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 243. zkia. 2016ko martxo



**Alaitz Seoane eta Ainhoa Alonso,
futbolean tinko**

Euskararen gaineko gogoetak

Sobre el conocimiento y uso del euskera

- Apirilaren 20an, asteazkena:

“Euskaraz badakigu. Euskaraz bizi nahi? Euskaraz bizi gaitzke?”

Lutxo Egia idazleak eta Karmelo Ayesta irakasleak aurkeztuta.

Ondoren, solasaldia. Lobianon, 19:00etan.

- Apirilaren 27an, asteazkena:

“Euskalduna da, baina Sevillakoa”.

Ibon Gaztañazpi aurkezleak elkarrizketa egingo dio Reyes Prados kazetariari.

19:00etan, Lobianon. Gazteei eta euskaldun berriei bereziki zuzenduta.

- Apirilaren 29an, ostirala:

Irakurketa musikatua Anari musikariarekin, 19:00etan Udal Liburutegian.

Bere gustuko euskarazko liburua gomendatuko du Anarik eta jarraian

lauzpabost abesti kantatuko ditu zuzenean.

Euskaldun eta euskal eragileei zuzendutako jarduera.

Parte hartzeko izena eman beharko da hilaren 25a baino lehen (688632874).

berboetan

Antolatzaileak



Ugaro

aholkulariak

Zubiaurre 27

943 17 43 44

ARGITARATZAILEA:Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.**HELBIDEA:**Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus**ERREDAKZIO TALDEA:**Alazne Aiestaran,
Paul Bustindui,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Imanol Mujika.

LAGUNTZAILEAK:

Amalia Arriaga,

Isaac González,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Jesús Martín,
Valentín Mugarza,
Ongarai Eskola eta
Emakumeen Topalekua.**ARGAZKIAK:**Ainhoa Alonso,
Paul Bustindui,
Rosa Cuevas,
Emakumeen Topalekua,
Estibalitz González,
Jesús Martín,
Valentín Mugarza,
Ermuko Udala,
Ongarai Eskola,
Alaitz Seoane
eta Dorleta Vidal.**PUBLIZITATEA:**943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:Ainitze Antxia, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.**TIRADA:**

2.425 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.


*Drogeteniturririk ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko ugaztunak

...Gure baserriarren ahotik

SANTANDERIA Comadreja *Mustela nivalis*

Sagu eta lur-saguak dira bere elikagai estimatuena eta, hauek eskastxo dabiltzanean, gogotsu egiten die kolpe untxi gazte, txori edota hauen arrautzei: itxura denez, gosez eta ahuleziaz hiltzeko arriskua du 24 orduan zeozer jaten ez badu. Gaez zein egunez ehizan eta aktibo dagoenez, bere begiak egokituta daude eguneko eta gaueko ikusmenari. Aktibotasun hori orekatzeko, badaki atsedean tartea hartzen eta inoren lanari probetxua ateratzen ere, sarritan hartzen baitu bere habitzat ehi-zatu berri duen karraskariaren habia edo gordelekua. Ilajea? Gorrizka, leuna eta ederra; bere gorotzen usaina, osteria, ez da ba hain gogoragarria eta, berau arakatzeko kapritxoa duenak, luma, ile eta hezur hondakinak topatuko ditu kakon artean nahastuta.



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4 Jesús Martín (Holanda)	BOTEPRONTOAN17 Alicia Pascual
ELKARRIZKETA5-7 Rosa Cuevas	IRITZIA18 11 eraso, 12 erantzun!
MALLABIAN ZER?8-9 Danel Ferreño	SALEROSKETAK19 Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN10 Yarn Bombing ekitaldia	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ESKOLEN TXOKOA11 Ongarai Eskolako berriak	KALEKO INKESTA21 Aparakaleku nahikoa dago Ermuan? Zerbait egin beharko litzateke plaza gehiago egoteko?
ERREPORTAJEA.....12-13 Emakumeen futbola ere, bada futbola	AGENDA21 Apirileko agenda
ERMUAN ZER.....14-16 Eider Gisasola eta Martintxo Salvador	

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMU
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de BizkaiaEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOHEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaDEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Jesús Martín

Uda batzuk igaro zituen Erresuma Batuan lanean, eta gauza berriak ikasi eta erronka ezezagunei aurre egiteko grina piztu zitzaion. Hogei urterekin, beraz, Alemaniara joan zen hilabete batzuk igarotzeko asmoz, hizkuntza ikasi eta esperientzia hartzeko. Baina bidaiak hura luzatu egin zen, eta 14 urte daramatza dagoeneko atzerrian.

- 20 urterekin alde egin zenuen Ermutik. Erabaki erraza izan zen?


Bai eta ez. Banekien zerbait gehiago nahi nuela, baina onartu behar dut beldurra ere banuela, ez nituelako ezagutzen Alemaniako hizkuntza eta kultura. Hala ere, motibatuta joan nintzen eta ideiak argi nituen, horrek lagundu zidan hizkuntza arinago ikasten.

- Zer topatu zenuen Alemanian?

Oso bestelako pentsaera topatu nuen, eta horretara moldatu behar izan nuen. Era berean, topatu nituen bizitza aldatu zidaten pertsonak eta aukerak. Izan ere, muga pasatzen bukatu nuen eta Holandara ikastera joan nintzen. Karrera bukatutakoan Alemaniara bueltatu nintzen, ikasketen alor berean lan egitera. Duela 10 hilabete lana aldatu eta Holandara bueltatu behar izan dut. Konpainia amerikar batentzako egiten dut lan orain.

- Zerk harritu zintuen gehien Alemaniara heltzean?

Alemanen malgutasuna: Ikasketak edo lana direla-eta, nola mugitzen diren he-



rrialde barruan edo atzerrian. Askok ez dute etxea erosten oso nagusiak izan arte, malguak izan nahi dutelako lan aukerei begira. Gainera, Ermuan pisu batek duen prezioaren truke, super etxea erosi dezakezu Alemanian, lorategi eta guzti! Bestalde, alemanen izaerak eta gauzak egiteko moduak harritu ninduen. Arauek arautzen dute gizartea, beraz, oso ondo funtzionatzen du denak, baina sozialki asko aspertu dezake. Europako iparraldeko jendearekin harremana izaten ikasi behar da. Esaterako, kafe huts bat hartzeko, astebete lehenago egin behar duzu hitzordua. Oraindik ez naiz ohitu, gure naturaltasuna nahiago dut.

- Zerbait botatzen duzu faltan?

Bai: eguraldia, hondartza, janaria, kalera irten eta jendea ikustea... He-

men neguan ohikoa da inor ez ikustea kalean, Berlin edo Hanburgo bezalako hiri handietan ez bazaude, jakina.

- Nolako da zure egun normal bat?

Ondo gosalduta eta lanera joaten naiz. 12:00etan bazkaldu eta 17:00 edo 18:00ak arte jarraitzen dut. 18:30ean afaldu, eta jarduera ezberdinak egiten ditut. 22:30 edo 23:00etan, ohera. Asko bidaiatu behar izaten dut Europan barrera eta Amerikara, eta horrek aldarazten dizkit errutinak.

- Ermura bizitzera bueltatzeko asmoa duzu?

Hiri handiago, kosmopolita eta anonimora, behar bada bai, Bilbora, esaterako. Baina, gaur egun, Ermura bueltatzea zaila ikusten dut.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO OKINDEGIA GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Rosa Cuevas, *Eroski Consumer* aldizkariko erredaktore-burua:

“Presiopean lan egiteak nire burua neurtzeko aukera ematen dit”

Etxeko ekonomia eta brikolaje ataletan eman zituen lehen urratsak, *Eroski Consumer* aldizkarian eta consumer.es atarian freelance hasi zenean 2007an. Hiru urte beranduago, 2010ean, hilabetekariaren erredaktore-buru izendatu zuten, eta iaiztik aurrera *Eroski Club* aldizkari berria ere bere ardurapean dago. Banaketa antolatu eta telefono deiak erantzutea ere bere zereginen artean daude, baina idaztea da txikitatik gehien gustatzen zaiona, hitzak elkartzea: “Hizkuntzek duten aberastasunak liluratzen nau”, dio. Modu egokian hitz egitea eta zuzen idaztea ditu gustuko, horren adierazle dira egin dituen ortografia eta ortotipografia-zuzenketa ikastaroak. Kaligrafia ingeleseko ikastaro-kapsula da bere azken erokeria. Lanaz eta kontziliazioaz hitz egin du Emakumearen Nazioarteko Egunaren biharamunean egindako elkarrizketa honetan.

- Zeintzuk aldizkari kudeatzen dituzu?

Eroski Consumer eta Eroski Club. Lehenengoa Eroski Fundazioak babesten du (etekinen %10 proiektu sozialetara bideratu behar dituelako), eta zerbitzu eta kontsumo kazetaritza lantzen dira bertan. Bigarrena, aldiz, edukien marketinera bideratuta dago, eta nire zeregina ere ezberdina da, produkzio lana egiten dut batez ere.

- Eroski Consumerren kasuan, zein lan egiten duzu erredaktore-buru izanik?

Kudeaketa integrala egiten dut. Hasteko, edukien planiltoa egiten dut eta onartu behar dut asko estimatzen dudala gaiak proposatzeko eta lantzeko dudana askatasuna. Zuzendariaren oniritzia dudanean, gai batzuk nire gain hartzen ditut eta beste batzuk kolaboratzaileen esku lagatzen ditut. Kolaboratzaile sare sendoa dugu: lantzen dituzten gaietan adituak dira, eta izena eta ibilbidea ere badute. Ordaindutako kolaborazioak dira, eta uste dut hori gortzeko modukoa dela gaur egun, kazetaritza gauzak dauden bezala egonda.

- Gero euren lanak zuzendu beharko dituzu....

Azken hitza zuzendariak dauka, baina nik ematen diet testuei zuzendariaren aurreko buelta. Batzuetan oso testu onak jasotzen di-

tugu, eta beste batzuetan editatu behar izaten dira, bai. Normala da, kolaboratzaileak beraien esparruan adituak baitira, baina ez dute formaziorik kazetaritzan. Zaila da pertsona bati esatea bere testua ez dela zuzendu esperatu zenuena eta lau ordu eman dituzula goitik behera aldatzen. Izan ere, beste aldean ere egonda nago, eta badakit gogorra dela hori entzutea.

- Aldizkaria inprentara bidali behar duzunean jasoko dituzu maiz goitik behera zuzendu beharreko testu horiek. Nola daramazue presioa?

Urteekin, presioarekin lan egiten ohitu naiz, eta gustatzen zait. Erronka bat da, hileron nire burua neurtzeko aukera berria. Momentu horietan nik sortutako teknikak eta lasterbideak erabiltzen ditut, eta emaitza ikusteak asebetetzen nau. Hala ere, oso txarto pasatu izan dut. Hasieran, aldizkaria inprentara bidali behar nuenean, uste dut argaldu egiten nintzela! Ardura handia izan zen 40 urteko historia duen komunikabidearen erantzukizuna hartzea. Gero, aldizkaria inprentara bidali osteko aste lasaia izaten da, eta neurri handi batean nire burmuinak deskantsu hori behar-beharrezkoa duela uste dut. Despistatzen banaiz, baina... akabo: Arnas barik heltzen naiz hurrengo zenbakira!



- Nortzuk dira zuen irakurleak?

Kontsumitzaileak orokorrean, baina argi daukagu aldizkaria dendan hartzen dela eta oraindik ere erosketen arduraduna emakumea dela. Berak egiten du erosketazuzendakaria, berak hartzen ditu erosketazuzendakariak, berak eramanen du etxera eta berak sukaldatzen du, bai.

- Eta irakurle horien irizkiak jasotzen dituzue?

Bai, erredakzioko telefonoa aldizkarian agertzen da eta hileron-hileron hamaika dei jasotzen ditugu. Telefonoaren ardura ere nik daukat, eta asko gustatzen zait, irakurleekin oso gertuko harremana izateko aukera ematen didalako. Anekdotak mordoa ditut!

- Zeintzuk dira gairik polemikoak?

Elikadurarekin zerikusia duten mitoak eta mirarizko dietak ezeztatzen ditugune-

an. Irtenbideak ematen dituzten artikuluek ere joko handia ematen dute. Aspaldian, top tenean daude: zer jan daiteke gastroenteritisa duzunean, idorreriarri aurre egiteko elikagai laxanteak eta Donejakue bidea.

- Elikadura osasuntsuari tarte handia eskaintzen diozue. Irakurleak jantzita daude gai horretan?

Elikadura arloan jendea nahiko galduta dago. Edo teoria daki, baina ez du praktikan ipintzen. Esaterako, gaur egun gure umeen %45ak gehiegizko pisua du, Estatu Batuek bakarrik daukate gure baino tasa altuagoak. Kontsumitzaileek esku hartu behar dute, eta udal eta estatuko instituzioek ere. Gainera askok Internetera jotzen dute informazio bila eta hori ez da zuzena, gehienetan ez dakigulako nor dagoen elikadura-blog

“Elikadura arloan jendea nahiko galduta dago”



Drogetenituri, 243 zkia.




ZERMIK
 SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
 DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
 ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

 www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
 Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
 Telf: 943 23 10 12

baten atzean, edo Instagram kontu baten atzean, eta zein prestakuntza duen.

- **Elikaduraz dezente jakin-
go duzu, ezta?**

Bai, Larousse entziklopedia txikia naiz. Ikerketa mor-
do irakurtzen ditut eta zo-
rionez edo zoritxarrez me-
moría ona dut: brokolia su-
per elikagaia dela, alkatxo-
fak kiwiak baino zuntz gehi-
go duela... gauza bitxiak ge-
ratzen zaizkit buruan. Argi
dago: jaten duguna gara.

- **Zure lana gustatzen
zaizu?**

Asko, idazten duzunaz bi-
zitzea harro sentitzeko mo-

dukoa da egun. Gainera, ko-
munikazioa oro har garairik
interesgarrietarikoa bizi-
tzen ari da eta lan honi es-
ker oso gertu nago 2.0 ko-
munikazioaz: sare sozialen
eztanda, blogarien fenome-
noa, *big data*, *instagrame-
rrak*... *Influencerrek* liluratu
egiten naute! Nik, denbora
izanez gero, bloga idatziko
nuke, hizkuntzarekin zeriku-
sia duten akatsak salatu eta
aholkuak jasoko lituzkeena.

- **Laneko egunerokotasune-
an zerbaiten falta suma-
tzen duzu?**

Telelana botatzen dut fal-
tan eta uste dut etorkizuna

“Gizarteari ahoa betetzen zaio hitz handiekin, baina errealitatea barregarria da”

hortik joan behar dela. Gi-
zarteari ahoa betetzen zaio
hitz handiekin, kontziliazioa-
rekin, esaterako, baina erre-
alitatea da beste herrialdee-
kin alderatuta bide luzea
daukagula oraindik egiteko.
Alemania eta Europa iparral-
deko herrialdeak ipintzen di-
ra askotan eredu bezala, eta
gurea barregarria da. Hemen
amatasun baja 16 astekoa
dela, eta 16 asteko ume bat
ezin da bere kabuz moldatu,
are gutxiago edoskitzea egi-
tea erabakitzen baduzu. Osa-
sunaren Mundu Erakundeak
amagandiko edoskitzea ahol-
katzen du umeak 6 hilabete
bete arte, baina 4 hilabeteko
baja eta gero lanean hasi be-
har bazara, ezin diozu edos-
kitzeari lehen bezala eutsi.
Gainera, aurrera joan beha-
rrean, atzera goazela. Krisia
medio, gizarte-politika asko
galtzen ari gara eta orain
inor ez da ausartzen eskua
altxatzen eta dagokiona al-
darrikatzen. Edoskitzea gai-
nera, ez da amaren eskubi-
dea, umearena baizik.

- **Zuk horri eustea lortu duzu?**

Bai, edoskitzean tematu
naiz. Badakit teoriak esaten
duela bai umearentzat bai
amarentzat onena dela eta
merezi duela uste dut. Baina
ulertzen dut ama askok uz-
tea, oso zaila delako, batez
ere jardunaldi osoarekin.

- **Jarduna murriztea da ama
askoren aukera bakarra?**

Lan jarduna murriztea edo
lan orduak kontzentratzea,
bai. Azkenean, betiko lana
ordu gutxiagotan egin behar
duzu, beraz, batzuetan
etxera eraman behar dituzu
beharrak, eta ez telelan for-
matuan, baizik eta desor-
duetan aurrera ateratzeko.
Horretarako, eskuartean di-
tuzun beste proiektu bat-
zuei intentsitatea kendu
behar diezu, eta lehentasu-
nak finkatu. Etengabe dire-
nak eta ez direnak egiten di-
tuzula iruditzen zaizu, hari
batean, ez zaudelako
%100ean lanean, ezta
%100ean ama paperean.
Gaur egun kontziliazioa ez
da existitzen, gainditu gabe-
ko irakasgaia da.

Dorleta Vidal




**AMAIA
HARATEGIA**



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

hamburguesería
TITANIC



*Pintxo dastaketa
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

aral97.com
aral

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Vllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

aral@aral97.com - Pol. Ind. Goitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia



Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com



CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

Danel Ferreño, bateria jolea:

“Bateria jole bakarra naizen arren, musikari ugari eman dituen herria da Mallabia”

Makina bat aldiz igo da oholtza gainera Danel Ferreño. Mallabitar asko bezala musikaren bidetik doa, baina berezitasun modura, herriko bateria jole bakarra da. Pasa den otsailaren 27an, Hesian taldearekin “40 minutu rock” jaialdian 8.000 pertsonen aurrean jo zuen. 22 urteko gaztea Stai Zitto taldean ere ari da gaur egun.

- Zelan egiten duzu aldi berean Hesian eta Stai Zitto taldeetan aritzeko?

Hasieratik oso argi neukan bateria izango zela nire bizitzan, eszenatokiz eszenatoki. Pasioa eta dedikazio handia jarri behar zaio, baina ondo daroat. Eguneroko bizitzaz gain kotxean bidaia ugari egin behar ditut, baina momentuz hartutako erabakiarekin oso gustura nago.

- Zer sentitzen da 8.000 pertsona aurrez-aurre dituzunean?

Hesianekin 2014an hasi genuen *Hegalak Astinduz* birra Durangon. Urte bat pasatxo daramagu eta orain ekin diogu biraren bigarren parteari. Sentsazio ederra da, gainera guk zuzenekoari garrantzi handia ematen dio-

gu, publikoaren harrera ona bilatzea baita gure helburua eta kasu honetan paregabea izan da haien erantzuna.

- Hesianekin bi CD grabatu dituzue, euskarazko musikan momentuko goi mailako taldeen artean zaudete. Zein da arrakastaren giltza?

Beste talde batzuetan ibiltakoa naiz, eta argi daukat kantu batek funtzionatzen badu guztia eman behar dela bide horretatik jarraituz. Aldiz, hasieratik ez badu funtzionatzen ezerezean geldituko da proiektua. Beraz bi alde daude, kantuak arrakastak izatea eta “40 minutu rock” bezalako emanaldi garrantzitsuetan parte hartzea edo pare bat hilabetetan kantuak denek ahaztea. Hesianekin jotzea kristoren sentsazioa da, kontzertu guztietan jendearen berotasuna sentitzen baitugu.

- Abestiak sentitu beharra daudela adierazten duzu. Nola lortzen da jendearen berotasun hori?

Gure aldetik bizitzea eta dena ematea funtsezko egi-



tekoak dira. Eszenatokian magia hori badago, taula azpian ere jendea kutsatuko egingo da.

- Bestalde, Stai Zitto taldean ere zabilta. 2015 paregabe baten ostean, zer aurreikuspen duzue aurtengo urterako?

Astiro-astiro, eta letra onarekin. Kontaktuak aprobetxatu eta bide beretik jarraitu behar dugu. Familia baten modura ulertzen dugu musika, denok batetik bestera elkarrekin joaten baikara. Momentuan kantu berriak grabatzen gabiltza, eta bideoklip baten proiektuan ere bagaude. Udarako hainbat kontzertu dauzkagu itxita. 2016 polita datorkigulakoan nago.

- Musika eta Mallabia betidanik joan izan dira

eskutik. Musikari asko zarete, baina bateria jole bakarra zu zara.

Biztanle oso gutxi garen arren, musikari asko eman dugun herria gara nahiz eta bateria jole bakarra ni naizen. Azkenaldian pisu handia ari gara hartzen herri bezala musikaren arloan.

- Musikariez gain musika zaletu asko dituen herria ere bada Mallabia. Ze mezu zabaldu nahiko zenieke bertakoei?

Jendeak erantzun ona ematen badie kontzertuei oholtza ginetik ere dena errazagoa da, beraz horrela jarraitu behar dugu. Musikaren afizio horrekin jarraitzen badute magia mantenduko dugu denon artean.

Paul Bustindui



ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...


...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefona: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

MARTXAN DAGO AURTENGO BIHARKO IZARRAK PILOTA TXAPELKETA



Pasa den hilaren 25ean ekin zion Mallabiko pilotalekuan ekainera arte iraungo duen aurtengo Biharko Izarrak txapelketak. Bertan, afizionatu mailako puntako pilotariak astero eguen eta zapatuetan ikusteko parada egongo da.

Bi kategoria daude. Binakakoan hogeita lau pilotarik hartuko dute parte eta lau t'erdikoan zortzik. Txapelketa hau hain berezia egiten duen sistema berdina erabiliko da aurtent: sei aurrelari eta sei atzelariz osatutako bi multzo. Horiek ez dute izango bikote bat, asterik astera aldatzen joango baitira bere multzoko beste posizioiko pilotari guztiekin jokatu arte. Multzo bakoitzeko partidu eta puntu gehien lortzen dituzten aurrelariak eta atzelariak sailkatuko dira finalerdietarako, eta final handi bat izango da ekainean. Sistema horrekin, parekotasunaz gain ikuslearentzat erakargarriak diren pilota partiduak lortzen dira, bikote askoren monotoniarekin amaituz.

Astero izango diren partiduak ostegun iluntze eta asteburu arratsaldetan izango dira egutegiaren arabera. Antolakuntzatik babesle eta instituzioen garrantzia aipatzen dute beste urte batez txapelketa aurrera ateratzeko.

OTSAILEKO LUR-JAUSIEK KALTEAK ERAGIN DITUZTE MALLABIAN

Mallabiko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia eta Ur Partzuergoa elkarlanean hasi dira otsaileko lur-jausiek Mallabian eragindako kalteak konpontzeko. Osmatik Mallababiarrrena poligonorarte euriak eragindako 400 metroko mugimenduak errepide bat moztu du, auzoguneko etxe bat isolatuz.

Udalak, geologoaren analisia eskatu ondoren, hondeamakina martxan jarri zuen egoera bere normaltasunera itzultzeko. 300.000 metro kubiko lur mugitu direla aurreikusitako dute. Lur

honek mugiarazi dituen materialek errekaren bidea jarraitu ez dezaten neurriak indartzeko erabakia hartu da. "Lurrekin nahastutako urak bide bat oztopatu dezake eta horrek Mallabiarrena industrialdean arazoak sortu ditzake", adierazi du Igor Agirre alkateak.



Mallabarrenakoaz gain, Goitondo industrialdean ere beste lur-jausi bat gertatu zen eta Onandi base-erriko atzeko pabilioian kalte materialak eragin zituen.

SEHIGA
PROTECCION LABORAL
PLAN BABESERAKO
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ZK

ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com

Modas Candé
Candelaria Rueda

Diputación, 12 | 48260 ERMUA Bizkaia
T 665 703 904
modascande@gmail.com

MUGA **KIKORRIK**

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

**ABELETXE EGOITZAKO LANGILEEK LANUZTE-
AK EGINGO DITUZTE**

ELA sindikatuak greba egiteko deia egin du Bizkaiko egoitzetan, tartean Ermuko Abeletxe Egoitzan. Euren esanetan, azkenaldiko egoera larriak eragin du deialdia: kontratazioan egonkortasunik eza (lanaldi partzialak eta erabateko prestasuna), bitartekoen tasa handia, gehiegizko lan-kargak, soldata oso apalak, txanda etanak erabateko prestasunarekin... Lehen lanuztea martxoaren 17an egingo da, 17:15etik 18:15era; bigarre-na eta hirugarrena, apirilaren 7an 11:00etatik 12:00etara eta 17:15etik 18:15era, hurrenez hurren.

**BERBALAGUNEK YOGA IKASTAROA
ETA IBILALDITXOA
ESKAINIKO DITU
APIRILEAN**

Berbalagun egitasmoak hainbat jarduera burutuko ditu apirilean:

- Oinarrizko yoga ikastaroa apirilaren 12an eta 19an Lobianon. 18:00etatik 20:00etara. Doan
- Euskarazko pintxopotea apirilaren 14an, Infreñu tabernatik hasita. 20:00etan. 6€, lau pintxopote.
- "Umeeekin paseatzen" Eitzaga-Santa Marina ibilbidea oinez (bertan txitxiburduntzi). Apirilaren 23an. 11:00etan patxi enparantzan
- Gurasolagun irekia apirilaren 29an. 17:00etatik 18:30era. Plazan edo Lobianon (eguaraldiaren arabera).

Yarn bombing ekitaldia egin zen Martxoaren 8an

Emakumearen Nazioarteko Egunean hamaika ekitaldi burutu ziren munduko bazter guztietan. Ermuan ere, egitarau zabala prestatu zuen Emakumeen Topalekuak, tartean *yarn bombing* saioa. "Berdintasuna landuz" lelopean, hiri-altzariak eta zuhaitzak koloretako artilezko ehunez jantzi ziren Martxoaren 8a Plazan eta Berdintasunaren Pasealekuan. "Gure helburua izan da Ermuko Martxoaren 8a Plaza emakumeon aztarna dela indartzea, feminismo eta emakumeen borrokaren ikurra eta sinboloa. Zentzu horretan ekimen arrakastatsua izan da", diote antolatzaileek. Hogei bat lagunek hartu zuen parte ekitaldian, aurretik Emakumeen Topalekuan jositako ehunak aukeratutako lekuetan ipintzen, eta oraindik ere ehun horiek ikusgai daude aipatutako lekuan.

**Arantza Morenok, Leire Gorritxategik eta Álex Ugenak brontzezko domina bana lortu dute**

Arantza Moreno ermuarrak Europako Jaurtiketa kopan parte hartu berri du (Errumanian), 23 urtetik beherako kategorian. 54,75 metroko jaurtiketa egin zuen eta horri esker podiumera igo zen Borge Sigrid norvegiarra eta Sara Kolak kroaziarrarekin batera. Bestalde, Leire Gorritxategik 43,02 metroko jaurtiketa egin zuen Espainiako I. Neguko Jaurtiketa Luzeen txapelketan (Castellonen), eta hirugarren sailkatu zen baita ere. Azkenik, atletismoermua.com atarian irakurri daitekeenez, Espainiako Txapelketetan parte hartzeko gutxieneko marka lortu zuen Álex Ugena ermuarrak Anoetan: 100 metroko hesi-lasterketan 8,69 segundoko denbora egin baitzuen. Gainera, brontzezko domina ere lortu zuen pertiga-jauzian Espainiako Jubenilen Txapelketan, 4,41metroko jauzia egin eta gero.

Sagarra tabernak irabazi du Kazuelita Lehiaketa

Kardua, urdaiazpikoa, almeja, berakatz, apioa, 2 almendra mota eta hegaluze ketu malutak dira *Itsas-lur* kazolatxoaren osagaiak. Horri esker irabazi du Sagarra Gastro Pubek Lobiano Gastronomía Elkarteak urtero antolatzen duen kazuelita lehiaketa. "Tabernan lau sukaldarik egiten dugu lan: Jesus Gonzálezek, Eneko Luisek, Pablo Intxaurragak eta José Alfonso García, eta bakoitzak proposamen bat egin zuen -diote-. Guztion artean erabaki genuen Pablok egindako kazuelatxoa zela onena, eta buelta batzuk eman genizkion lehiaketara aurkeztu ahal izateko". 25 taberne hartu dute parte lehiaketan, baina guztien artean Etxarri Aranatzeko sukaldari gazteak sortutako *Itsas-lur* kazuelatxoa gailendu da, epaimahai profesionalaren iritzi onena izan baita. Sukaldariek pozik jaso dute saria, baina jendearen oniritzia ere garrantzitsua dela onartzen dute, eta horren adierazle da astebetean ia 1.000 kazuelatxo zerbitzatu dituztela. Bestalde, Urkaregi tabernak jaso du bigarren saria, *Urkaregi* kazolatxoari esker.



Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]
Goienkale, 9 • 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com [f] [g]

IZASKUN TXURRUKA
Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia
94 317 66 90
peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

Bizitza berri baterako tapoiak

Ongarai Eskolak, komunitate osoaren konpromisoarekin, ikastetxeko ikasleengan jasagarritasuna eta elkartasunaren baloreak sustatzen jarraitzen du eta ikasturte honetan proiektu berri batean murgildu gara, "Bizitza berri baterako tapoiak", hain zuzen ere. Proiektu horren helburua plastikozko tapoiak biltzea da, osasun arazo larriak dituzten umeei laguntzeko. 2011an hasi zenetik, 100 ume baino gehiagok 800.000€ jaso dituzte 3.500 tona tapoien birziklapenari esker. Gainera, 5.000 tona karbono dioxido emisio ekidin dira, klima aldaketaren arazo nagusia. Guztira, 1.000 milioi tapoi baino gehiago izan dira birziklatuak!

Kanpaina honen lehen protagonista Martina izango da. Berak behar duen tratamendu berezi baterako dirua lortzeko, 20 milioi tapoi batu behar dira eta guk milaka bilduko ditugu hurrengo hilabeteetan eta 6.mailako ikasleak izango dira arduradunak. Aupa Martina!!!




Inauteriak

Eguen-Zuri egunean oilarraren jokoan parte hartu eta gero, astearte-inautea eskolan ospatu genuen. Aurtengo gaia San Fermin izanik, entzierroa ere izan genuen, hori bai, santuari abestu eta gero. Arrisku ederra eta lasterketa politak ikusteko aukera egon zen. Entzierroaren ondoren, ikasleen dantza emanaldia izan zen eta guraso elkar-teak eskainitako txokolatadarekin bukatu genituen aurtengo inauteriak.



Tunela

Udal Liburutegiak, Gizarte Hezkuntzan eta Esparru Psikosozialean Esku Hartzeko Zerbitzuarekin batera, jarduera interesgarria eskaini zigun: Anthony Browne *Tunela* album ilustratuaren inguruko ariketa literarioa. Oihana Etxegibel dinamizatzailearen eskutik formazioa eta materialak jaso ondoren, eskolako liburutegian kokatutako panelak



eta tunela bera, ikasle eta irakasleentzat erabilgarri egon ziren bi astetan. *Tunela* liburuan gai interesgarriak agertzen dira: anai-arreben harremanak, beldurrak, generoaren identitatea, eta abar. Liburua bera, erakusketa eta formazio oso baliagarriak izango dira ikasleekin irakurketa eta gaiak lantzeko.



CITROËN
AUTOS AMEDI
 Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
 Telefonoa 943 17 04 14

**OSASUNA • ESTETIKA
 EDERTASUNA**

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

 Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

Sagarra
 Gastro-Pub

Probaleku 4 • Ermua • 943 946 810

BERRITZE LANAK
 ZURE ERAIKINEAN
 Ez dakizu nondik hasi?
 GURE LANTALDE TEKNIKOAK
 LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

SPARA
 rehabilitazio • sostenibildia

www.spara.es
info@spara.es
 943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3° 48260 Ermua - Bizkaia

DESCUBRE-TÉ

Teak, kafeak, txokolateak,
 ezta... eta baxera bereziak!!

Probaleku 4 Bis • Ermua, Bizkaia
 943 03 15 81 • descubrenew@hotmail.es
www.teteriadescubre-te.com

Emakumeen futbola ere, bada futbola

Alaitz Seoanek eta Ainhoa Alonsok txikitatik jokatzeko futboleant. Talde garrantzitsuetan aritu dira, lehen mailan jokatu dute eta Euskadiko Selekziorako hautatu dituzte, besteak beste. S.D. Eibarko lehen taldean jokatzeko dute egun eta iaz 2. mailara igo ziren. 2015-2016 denboraldiko helburua da mailari eustea, baina futbol-zelaiko borrokaz gain, gizartearen aurreiritziekin eta mutilen futbolaren nagusitasunarekin ere lehiatu behar dute oraindik ere.

Mutikoen ostikada artean hasi ziren biak futboleant jokatzeko. Gaur egun, Alaitz Seoanek 24 urte ditu eta defentsa da; Ainhoa Alonsok, berriz, 26 urte ditu eta aurrelaria da. Horrez gain, kirol begiralea da Alaitz eta ingeniaria Ainhoa, nesken futboleant etorkizun profesionala ondo lotuta izatea ezinbestekoa delako. Alaitz ermuarra da eta Ainhoa Ermuan bizi den bergararra, baina S.D. Eibar taldeko aldagelak konpartitzen dituzte azken urteotan.

Euskal Ligan aritu ziren iaz eta 2. mailara igotzea lortu zuten, partida bakarra galdu eta gero. Aurten, baina, aurkarien maila altuagoa dela igartzen da. "Sailkapenean erdiko postuetan gau-

de, puntuak harramazkatzeko, baina uste dugu erraz lortuko dugula mailari eustea", diote konbentzitutak. Zenbat eta maila altuagoa, baina, orduan eta konpromiso handiagoa eskatzen zaie: entrenamendu gehiago astean, kanpoan jolastu beharreko partidak... eta hori guztihori lanarekin edota ikasketekin uztartu behar dute. "Gazteagoak ginenean, profesionalak izateko ametsa genuen, orain ez, futbola hobya da eta horrela hartzen dugu".

Muturreko errealitateak

Mutilen eta nesken egoerak ez dauka zerikusirik. Konparazioa egitea zentzugabekeria da, muturreko errealitateak direlako: "3.



Alaitz Seoane.

mailan edo preferentean jokatzeko duten gizonak diru gehiago irabazten dute lehenengo mailan jokatzeko duten emakume askok baino — dio Ainhoak—. Esku bateko atzamarrekin zenbatu daitezke futbolaz bizi diren emakumeak Espainian, eta Euskal Herrian zer esanik ez! Estatu Batuetan, aldiz, emakumeen futbola dago gizonen futbolaraino gaitetik: haiek dira kobratzen dutenak eta harmailak betearazten dituztenak. Brasilen eta Argentinan ere nahiko aurreratu daude. Europan, Frantzia eta Ingalaterra dira puntakoak, baina oraindik lan asko dago egiteko".

Hala ere, onartzen dute ezin direla euren egoeraz kexatu, ez dutelako soldatarik, baina behintzat ez dute-

lako ordaindu behar jokatu ahal izateko: klubak arropa ematen die, kanpoan jokatzeko dutenean autobusa ipintzen die, fisioterapeuta daukate, material eta aldagela hobeak lortu dituzte... Baina astiro-astiro lortu dira hobekuntza hauek, "orain arte injustizia gehiago ikusten genituelako", diote. "Lehen, edozein kategoriatako mutilek lehentasuna zuten entrenamendu eta partida ordutegiak ipintzeko. Orain, lehenengo mailan dagoen mutilen taldearen atzetik gu goaz".

Eta noren esku dago baldintzak hobetzen jarraitzea? Euren ustez, fronte ezberdinak daude. "Alde batetik, jokalariek borroka egin behar genuke. Bestalde, klubek neskatilentzako eskolak

Emakume ermuarrak futboleant:

- 2. maila: Ainhoa Alonso, Alaitz Seoane eta Laura Prieto.
- Erregionala: Andrea Cedeño eta Lidia de Luis.
- Kadetea: Julene Olaia, Itsaso Gorostegi, Marlén Ferreira, Ane Prieto eta Paula Suárez.
- Urki Infantila: Malen Olañeta, Leire Ruiz eta June Hernández.
- Alevin eskola: Ane Gorostegi, Mara Gandiaga, Ariane García, Aroa Cernada, Nora Garabal eta Amaia Aginaga.

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILZEN KOPIAK ere egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

Caperos

Pinboak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

izan beharko lituzkete, mutikoentzako dituzten bezala. Instituzioek horrelako ekimenak bultzatu beharko lituzkete eta komunikabideek nesken futboleko arreta ipini beharko lukete”, azaltzen dute. Orain arte, inork ez diela jaramonik egin sala-

tzen dute, herri aldizkarietan baino ez zirela agertzen, noizbehinka, eta izkina txiki batean. Baina gauzak aldatzen doaz, Eibarren behintzat: laz San Juanetako pregoia eman baitzuten eta Euskal Herriko Itzuliko etapa bati irteera eman zioten.

Ainhoa Alonso.

- Zure indarguneak?

Abiadura, teknika ona, abila ateari begira eta bi hankekin jotzen diodala baloiari. Gainera, esperientziak ematen dizun balore hori daukat.

- Hobetzeko?

Kontu defentsiboak, kokapen aldetik.

- Nor miresten duzu?

Messi eta Vero Boquete.

- Entrenatzaile bat?

Guardiola, momentuko talderik onenean iraganaren eta geroaren arteko mugarria izan zelako. Bere futbola ulertzeko modua transmititzen jakin zuen.

- Futbol zelai bat?

Talde bezala, Ipuruan jokatzea gustatuko litzaidake.

- Amets bat?

Lehen mailan denboraldi batzuk ematea gustatuko litzaidake, baina orokorrean amets guztiak bete ditut futbolekoan.

Alaitz Seoane.

- Zure indarguneak?

Azkarra naiz, buruarekin jokatzen dakit, ez naute partidatik erraz ateratzen eta teknika eta kolpe onak ditut.

- Hobetzeko?

Gauza asko, baina tira, nahiko ondo moldatzen naiz.

- Nor miresten duzu?

Ez daukat prototiporik.

- Entrenatzaile bat?

Guardiola eta Valverde. Azken horrek Athleticekin lortu duena ikaragarria izan da. Kopako finalera berriro heldu eta Supercopa irabazi.

- Futbol zelai bat?

Ipuruan futbol-partida jokatzea nahiko nuke. Bigarren aukera, San Mames.

- Amets bat?

Lehen mailan jokatzea, baina lortu nuen. Athleticekin jokatzea izango litzateke bete gabeko ametsa.

Fronte horiek guztiak nahiagoak izango ez balira, gizartearen zati bat ere kontrari dute. Futbola mutilen kirola dela entzun dute askotan. “Gazteen ahotik, gainera — diote harrিতта—. Normalizatzen hasi bada ere, esaten dute ez dela posible emakume bat futboleko aritzea. Askotan ez dute sinesten, fisikoa begira eta “ez dator zure itxurarekin bat” esaten dizute, hitz horiekin gainera, gorpuzkera zabalak edo mutil itxura izan beharko bagenu bezala. Baina beste batzuk haratago doaz, eta mespretxuz esaten dizute emakumeen futbola ez dela futbola”.

Jakin badakite emakume eta gizonen futbola ezberdi-


na dela. “Guk indar gutxiago daukagu eta horregatik buruarekin jokatzen dugu: gure futbola askoz ere teknikoagoa da, taktikoagoa —azaltzen dute—. Mutilena intentsuagoa da, fisikoagoa, indarra eta kontaktua dira nagusi. Afizionatu batzuek gure futbola nahiago dute, eta guk horretan tinko jarraituko dugu”.

Euren lana ez da alperrik galduko, neska-alda itzela datorkielako atzetik baloia hanketara itsatsita. Tartean, 19 ermuar daude, 10 eta 22 urte bitartekoak, Eibar taldeko kategoria ezberdinetan trebatzen, eta horiei etorkizunik onena opa diete.

Dorleta Vidal



Ainhoa Alonso.



TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)



-%50!!

Atsedendiaz
hitz egingo
dugu?

**Zubiaurre 32
(Ermua)
943 177 041**



**Denetik zure
maskotarentzat!**

- Maskotentzako janaria
- Katu eta txakurrentzako osagarriak
- Maskoten autogarriketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20
Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma
48260 ERMUA (Bizkaia)
bobby.todoparatumascota@gmail.com

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es

Eider Gisasola, "Ermuan Bagara" ekimeneko koordinatzailea:

"Euskararekiko atxikimendua adierazteko eguna prestatzen ari gara"

Maiatzaren 28an, larunbata, Ermuko euskaltzaleek hitzordua dute plazan: "Ermuan Bagara" ekimenaren lehen edizioa ospatuko da. Herriko talde ezberdinek eskainitako jardueretan parte hartzeko aukera izango dute bertaratzen direnek, euskara nagusi izango den egun honetan.

- Zer da "Ermuan Bagara" ekimena?

Euskara ardatz izanda, ermuarrak bilduko dituen egun bat. Ermuko euskaltzaleen sarea sortu eta ehuntzeko prozesua alde batetik eta jai giroa beste alde batetik batuko dituen egitasmoa. 12 ordu pasatxo iraungo du jai horrek, non protagonistak Ermuko elkarte eta euskaltzaleak izango diren. Ekintza anitz eskainiko ditu, parte hartzailea izango da, adin tarte guztientzat, eta herriaren parte diren beste hainbat kultura eta hizkuntza gutxituei zabalik egongo da. Ermuko errealitatea adierazi eta euskararekiko atxikimendua erakusteko egun bat.

- Zein da helburu nagusia?

Euskal komunitatea batu eta ezagutzera eman nahi dugu, eta beste komu-



nitateekin harremanak sendotu, elkar ezagutu eta jai egun honen antolaketa- ren bidez loturak sendotu.

- Zenbat elkartek hartuko dute parte?

30 elkartetik gora eta hainbat euskaltzalek.

- Zer jarduera mota eskainiko dira?

Kirola, kontzertuak, dantza, antzerkia, irakurketa, mintzodromoa, kantuak, tailerrak, bertsoak, bazkari herrikoa, aldarrikapen mezua... jai giro aparta!

- Abesti bat ere prestatu duzue...

Ekitaldirako kantua eta dantza Antxitxiketanekeo begiraleek sortu dituzte: Nahiera Gallasteguik, Asier Cascánek, Leire Elustondok eta beste hainbat musikaririk. Egunean bertan *flashmob* bat grabatuko da abesti horrekin Ermuko plazan, eta dantzaren koreografia ere prestatu dago, Lorea Arrizabalagak, Nerea Armerok eta Hiart Redondok asmatuta. Apiriletik aurrera adi ibili, dantza eta

kantua ikasteko bideo bat zabalduko dugu-eta Ermuan Bagara facebookean eta eskoletan!

- Ekimena identifikatuko duen logoa ere baduzue. Zertan oinarritu zarete diseinatzen?

Ermuko Euskaltzaleen Sareak eskatuta Lorea Perosanzek logoa sortu du. Azaldu zigun kantua entzun eta gero sortu zuela logoa. Logoan dauden letrak guztiz bete gabe daude, Euskaltzaleen Sarea ehuntzen doan heinean, tindatzen joango direlako. Euri tantak, bestalde, adierazten du sare hori ondo errotuta dagoela Ermuan. Eguna koloretuagoa izateko, adin guztietarako kamisetak ere salgai jarriko dira, logoa daramatzatenak. Apiriletik aurrera, Euskal Biruseko bulegoan edo 688632874 zenbakira deituta eskuratu ahal izango dira.

Amalia Arriaga
eta Dorleta Vidal





optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

Euskararen inguruko gogoetak eta irakurzaletasuna bultzatuko dituzte Ermuan hainbat jarduerak

“Irakurri, gozatu eta oparitu” eta “Berbetan Jardunaldiak” ekimenak burutuko dira Ermuan apirila eta maiatza bitartean. Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea eta euskararen erabileraren inguruko gogoetak egitea dira bi ekintza horien helburuak hurrenez hurren, eta herritar orori zabalik daude.

Euskal Herriko beste 49 herritan bezala, “Irakurri, gozatu eta oparitu” egitasmoa gauzatuko da Ermuan ere, apirilaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean. Kanpainaren izenak berak argi adierazten duenez, hiru pausu eman behar dira bertan parte hartzeko. Lehenengo pausoa irakurtzea da, euskaraz irakurtzea, alegia. Horretarako, Udal Liburutegira joan, eta euskarazko edozein liburu maileguan eskatu ahal izango da. Jarraian, liburutegira itzuliko da, eta fitxa erraz bat bete beharko da. Fitxa hori beteta, liburuzainak

erosketa-txekea emango dio irakurleari, Maribel edota Xiripot liburu-dendetan erabiltzeko. Eta azken pausua erosi eta oparitzea izango da. Izan ere, erosketa-txekeak euskarazko edozein libururen prezioaren %35 ordaintzeko aukera emango du.

Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako “Irakurri, gozatu eta oparitu” egitasmoaren 10. edizioa izango da aurtengoa, herri ezberdinetako euskara elkarte –tarteetan Euskal Birusa–, Udal, liburutegi eta liburu-dendekin batera. Gainera, hainbat Udal eta Mankomunitate, Nafarroako Foru Gobernua eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak zein Araba eta Bizkaiko Foru Aldundiak beharrezko babesleak ditu. “Herritarrak euskarazko liburuak irakurtzera animatu nahi ditu, irakurtzearen alde atsegina azpimarratuz eta liburutegi publikoen zerbitzuen erabilera sustatuz –diote Euskaltzaleen Topagunetik–. Gainera, parte hartzea saritzen du, liburuak erosteko abantaila ekonomikoak emanez, eta liburuak opari bihurtzera gonbidatzen du”. Patxi Zubizarreta

idazleak egindako 50 liburu gomendatuen zerrenda izango da aurtengo berrikuntzarik handiena, 5 adin tartetan sailkatuta aurkeztuko dena.

Gogoetak prest

Bestalde, Lutxo Egiak, Karmelo Ayestak, Ibon Gaztañazpik, Reyes Pradosek eta Anarik parte hartuko dute “Berbetan Jardunaldien” 16. edizioan. Apirilaren 20an, asteazkena, Lutxo Egia idazleak eta Karmelo Ayesta irakasleak aurkeztuko dute “Euskaraz badakigu. Euskaraz bizi nahi? Euskaraz bizi gaitzeko?”, eta ondoren solasaldia egingo da. Lobianon, 19:00etan.

Apirilaren 27an, asteazkena, Ibon Gaztañazpi aurkeztuko elkarrizketa egingo dio Reyes Prados kazetariari. “Euskalduna da, baina Sevilakoa” izenburupean, Reyesen euskalduntze prozesuaren gorabeherak ezagutzeko aukera izango dute bertarututakoek. 19:00etan egingo da Lobianon eta gazteei eta euskaldun berriei dago bereziki zuzenduta.

Azkenik, apirilaren 29an, ostirala, irakurketa musikatua eskainiko du Anari musi-



irakurri,
gozatu eta
oparitu

kariak 19:00etan Udal Liburutegian. Bere gustuko euskarazko liburuak gomendatuko du Anarik eta jarraian lauzpabost abesti kantatuko ditu zuzenean. Euskaldun eta euskal eragileei zuzendutako jarduera honetan parte hartzeko, izena eman beharko da hilaren 25a baino lehen, 688632874 telefonoan.

Euskararen ezagutza eta erabilerarekin zerikusia duten gairen inguruko topaketa hauen antolaketan parte hartu dute Euskal Birusa Euskara Elkarteak, Eskolabari Ikastetxeak, Ongarai Eskolak, Anaitasuna Ikastolak, Kaltxango AEK Euskaltegiak eta Udal Euskaltegiak. Gainera, Ermuko Udaleko Euskara Zerbitzuaren babesa dute.

Dorleta Vidal



TXALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

ENKARGYAK
943 030 299

Heapaindegia

MT Heapaindegia
C/ Marqués de valdespina nº 8 bajo
48260 Ermua (Bizkaia)
tlf. 943170474
Móvil. 688819336

Silvia Gastón Izaquirre
facebook: <https://www.facebook.com/heapaindegiamtptxluqueria.mt>

Martintxo Salvador, El Conquis programako parte hartzailea:

“Ez nintzateke oihanera bueltatuko”

Orain arte ez du sekula El Conquis realitya jarraitu, aspergarria iruditzen zitzaiolako. Aurten, baina, bere koinatak berotu zuen eta castingera aurkeztu zen. Bost ordu zain egon eta gero, haserre bizian egin zuen hautaketa-proba, eta bere naturaltasuna izugarri gustatu zitzaien produktoreei. Anaconda taldearen kide izan da. Ezustean, baina, taldekide gehienen botoak jaso zituen, kanporaketa-proba galdu eta Kolonbiako oihana utzi behar izan zuen.

**- Zeintzuk ziren zure espek-
tatibak El Conquisen?**

Kristoren ilusioa eta finalean egoteko gogoia nuen, asko aguantatzen dudalako eta forma fisiko onean nagoelako.

- Eta zer gertatu zitzaizun jada Ermuan egoteko?

Sei taldekidek duelura joateko aukeratu nindutela eta joko hura galdu nuela. Ez nuen inondik inora espero nire taldekideek ni hautatzea. Ez zuen inork espero, Julian ere harrিতa geratu zen. Taldean mutil arazo-txoa genuen, César, eta neskek batez ere ezin zuten ikusi. Nik harreman handia dut Césarrekin eta behar bada hori ez zitzaien gustatu.


- Nekatuta omen zeudela zioten batzuek...

Lagunartean egotea gustatzen zait, baina bakardadea ere atsegin dut. Jende guztiak batera hitz egiten duenean, aztoratu egiten naiz. Jendearengandik deskonek-

tatzen dut batzuetan eta talde zalea den jendeak ez du hori ulertzen. Bakarrrik egote hura, neketzat hartuko zuten-edo. Gainera, lan egin behar zenean, lan egiten nuen, baina batzuk etengabe zeuden beharrezkoak ez ziren gauzak egiten, bestean mugimendu guztiak kontrolatzen... Ni ez nau inork manipulatu eta askotan isildu naiz. Erku, adibidez, nire onetik ateratzen ninduen, eta ez nion ezer esan arazoak saihesteko.

- Gero duelua galdu zenuen. %100a eman zenuen?

Ez, minduta joan nintzelako. Taldean adostu genuen, taldekide berriak zeudenean, eurei emango geniola botoa, eta jende gehienak ez zuen bere hitza bete (Maria, Txarly, Juanma eta ni kenduta). Gainera oreka proba tokatu zitzaidan. Ordu eta piku irau zuen, eta ezin nuen,



hankek ez zidaten erantzun, eta pentsatu barik erraztasunak eman nizkion Naiarari. Gainera, burua Ermuan nuen. Ez zitzaidan ia janaririk geratzen, ez ziguten urik ematen, sekulako azkura nuen buruan erreta neukalako, 18 egun generamatzan dutxatu barik, hortzak garbitu barik...

**- Irabazlea aukeratzeko-
tan, zeinen aldeko apustua
gingo zenuke?**

Juanmaren alde, makina bat da. 53 urte ditu, baina ehiza eta triatloi txapelduna da. Gainera, nafartarrek duten izaera berezi hori dauka eta erraza da berarekin harreman ona izatea. Césarrek fisikorik onena dauka, baina burua da bere arazoa.

- Bueltatuko zinateke? Eta bueltatzekotan, zerbait aldatuko zenuke?

Oihanera ez nintzateke bueltatuko; Patagoniara, elurretara, bai. Hala ere, ez nuke ezer aldatuko: naizen modukoa izan naiz, lehiatu dut eta zintzoa izan naiz.

- Gaur egun, programa bukatuta, harreman ona duzu berdeekin?

Bai, uste dut parte hartzaile guztiekin harreman ona duen bakarrenetakoa naizela gaur egun. Aipatzekotan, Maria, adibidez, programako pertsonarik onena zen; Patxi ere oso jatorra zen, baina dagoeneko bere onetik kanpo ikusten dut. Hemendik aurrera ikusiko da sekulako haserrealdiak egon zirela batzuen artean. Ikusleek etxetik ezin dute ulertu, programan egon behar da, egoera kaskar horietan, jokabide batzuk ulertzeko.

Dorleta Vidal



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

es

egolek

electrizitatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

ALICIA PASCUAL

- Txikitako oroitzapenik?

Probalekun bizi nintzen, Zarauztarra tabernaren ondoan, eta auzoan jolasten nuen beti-beti: Arrieta zelaietako baserrietan ezkutuan sartzen, goman, sokadantzan, ezkutaketan, *velen* jokoan... Oso berandura arte egoten nintzen kalean eta oso ondo pasatzen nuen.

- Eskolatik bueltan ere, auzoko lagunekin?

Bai, Eskola Nazionaletan ikasten nuen, eta eskolatik auzora joaten nintzen. Ez nituen herriko kale asko ezagutzen. Domeketan bakarrik iritetzen ginen: karamelerora joan, gozokiak erosi eta zinera.

- Txikitari zer izan nahi zenuen?

Psikologoa.

- Eta gaztaroaz zer gogoratzten duzu?

Domeketako meza ostein Alaskara joaten nintzen dantzan egitera, mosto handi batekin. Han ezagutu nuen senarra, 16 urterekin, eta 29rekin ezkondu ginen.

- Txikitatik daukazu herrentasuna?

Bai, luxazioa izan nuen morkorean eta ebakuntza egin zidaten 4 urterekin. 14 hilabetez egon nintzen ingresatuta Gortizen. Nahi izan dudana guztia egin dut beti, baina adinarekin mina sentitzen noa.

- Estankotan bakarrik egin duzu lan?

Lhengusu batzuen alaba zaindu nuen bi urtez, eta ostein estankotan hasi nintzen.

- Zure lana gustukoa duzu?

Bizitza guztia daramat he-



49 urte ditu, ezkondua dago eta 17 urteko alaba dauka, Paula. Jaio zenetik Ermuan bizi da. Hiru neba-arreben artean, gazteena. Eliza ondoko estankotan 25 urte inguru daramatza. Badaki jendeak pertsona seriotzat duela, baina gauza askok eragiten diote barrea.

men, uste dut ez nukeela beste ezer egiten jakingo.

- Lanaz gehien estimatzen duzuna?

Jendearekin harremana izatea.

- Gutxiengoa?

Ezer, oso barneratuta ditut egin beharrekoak.

- Tabakoaren salmenta aldatu da azken urteotan?

Bai, gero eta gutxiago erretzeko joera dago. Baina biltzeko tabakoak gorakada handia izan du, merkeagoa delako.

- Erretzailea zara?

Bai. Ez dut sekula egin tabakoari lagatzeko benetakosaiakera.

- Estankoa lekuz aldatu zenutenean...

Ordenagailuarekin trebatu behar izan nuen, eta kostatu zitzaidan.

- Aisialdian?

Irakurtzea gustatzen zait. Donna Leonen *Las aguas de la eterna juventud* da irakurri dudana azken liburua.

- Liburu elektronikoa duzu?

Bai, baina bidaiatzen dudanean bakarrik erabiltzen dut. Paperekoa nahiago dut.

- Bidaia zalea?

Bai. New York eta Cancúnera joan nintzen ezkonbidaietan, Italian egon naiz, Parisera joan nintzen koadrila-

ko neskekin...

- Nora joango zinateke?

Argentinara, Veneziara, Egiptora...

- Txikitako lagunak dituzu oraindik?

Ez, gehienak kanpora joan zirenekin, baina gertuen gaudenok harremana daukagu oraindik.

- Kirola egiten duzu?

Ez. Kirol asko egin izan dut (gimnasia, aerobic, dantza...), baina orain ez. Beti daukat minen bat!

- Sukaldaritza duzu gustukoa?

Ez, ez naiz jatun ona ere ez.

- Puntuala zara?

Ez, ez naiz inoiz garaiz heltzen.

- Pazientzia duzu?

Jende arruntarekin ez, baina alabarekin bai.

- Akatsa?

Berehalako haserrealdiak ditudala.

- Bertuterik?

Ez naizela herratsua.

- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Gezurrak.

- Zure eguneko momentua?

Gaua: etxera heldu, afaldu eta telebista apur bat ikusi.

- Zerbait ez egin izanaren pena duzu?

Karrera bat ikasi ez izanaz damutzen naiz.

- Egunkaria irakurtzen duzu egunero?

Gainetik.

- Zein albiste irakurri nahiko zenuke?

Minbiziaren kontrako sendagaia topatu dutela.

Dorleta Vidal

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

11 eraso, 12 erantzun. Feministok prest!

Gaur egun, beharrezkoa eta ezinbestekoa deritzogu bortizkeriatzat zer ulertzen dugun birplanteatzeari, bere konplexutasun guztiak eta bere forma anitzak ulertzeko markoa sortuz. Bortizkeria matxistak ez dira kolpeak eta erailketak soilik: arazo estrukturala da eta sistema batean oinarritua dago. Emakumeok beldurrean hezten gaituzte eta gure gorputza ahula den bitartean gizonena erasokorra dela sinestara zi nahi digute. Bortizkeria matxista ez da bat eta bakarra, gure jendarteak eraikitako egitura sendoa baizik, eta feminismoak egoera hori agerian uzteko eta hari aurre egiteko erantzukizuna dauka.

Adibidez, gaua eta jaiak bortizkeriarako espazioak dira. Gaua, alkohola eta permisibitatea aitzakia hartuta emakumeon kontrako erasoak areagotu egiten dira. Batzuentzat jaiak ondo pasatzeko espazioak diren bitartean, beste batzuentzat erasoak, bazterkeria eta beldurra sufritzeko espazioak dira.

Baina emakumeok ez gara ez biktimak, ezta pertsona pasibok ere. Gure bizitzaren protagonistak gara. Gure errealitatearen transformazio sozialean eragin zuzena duen subjektu politikoak gara. Arazoaren muinari heltzeko ordua da, konpromisoak hartzeko ordua, bortizkeria matxis-

“ Bortizkeria matxista gure jendarteak eraikitako egitura sendoa da ”



Ermuko Emakumeen Asanblada

tak saihestu eta emakumeok menpekotasun espazioan ezartzen gaituen sistema eraldatzeko garaia. Argi daukagu zeintzuk diren horren jatorriak eta berareki aurre egiteko feministok prest gaude.

Euskal Herriko mugimendu feminista aurre egiteko prest dago eta apirilaren 9an hori plazaratzeko aukera ezin hobea izango dugu. Gasteizko kaleak betetzeko gonbidapena luzatzen dizuegu, eraso bakoitzaren aurrean egongo garela altu eta ozen oihukatzeke: erasorik ez erantzunik gabe! 11 eraso, 12 erantzun. Feministok prest!



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
 48260 · Ermua · Bizkaia

solozabal
tabakoak

torrekua 1
 tel./fax: 943 17 07 33



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Enrailak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

ALOKAIRUA

Pisua alokatzen dut Zubiurre 24an. Bi logela ditu. ☎ 648 64 37 15

Aparkaleku itxi bikoitza saltzen dut San Pelayon (Dia supermerkatuaren azpian). -2 solairua. ☎ 649 621 866 eta 670 861 775.



Martxoaren 1ean Zorionak Ander!! 3 urte bete dituzu! Txapeldun! Muxu handi bat aita eta amaren partez. Asko maite zaitugu!!!



Apirilaren 12an Zorionak Nahia zure 1. urtebetetzean!!! Jarraitu horren alaia izaten, gure txikia!!! Patxo eta besarkada handi bat etxekoan partez!!! AMZ



Martxoaren 29an Zorionak maitxia, oso ondo pasa zure egunean Aitzol, aita eta amaren partez. 13 musu handi.



Apirilaren 1ean Zorionak aita eta 3 musu handi Jone, Aitzol eta amaren partez. Ondo pasa zure egunean.



Martxoaren 28an Zorionak tia Maite Jone, Aitzol eta etxeko guztien partez. Ondo pasa zure eguna eta musu asko.



Conchi Uriartek dioenez, akatsa egin zen urtarrileko Mallabiko argazki zaharrean. Goiko ilarako lehen gizona Juan Zabala dela esan genuen, baina Juan Pablo Uriarte da, hau da, Conchiren aita.

Hurrengo zenbakirako azken eguna: APIRILAREN 18a



ETXETRESNA ELEKTRIKOEN SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

Zure **publizitatea:**

943 179350

688 632876

drogeten@gmail.com

DROGETEN ITURRI TURRI TURRI
DROGETEN
DROGETEN

aldizkarian

GINEKOLOGA
M^a Jose Ruiz de Porres dk.

- Bular-azterketa
- Minbizi miaketa prebentiboa
- Zitologia
- Bagina eta abdomen ekografia
- Mamografiak
- Bular-ekografia
- Nerabeei atentzioa
- Menopausiari atentzioa
- Densitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

PARTIKULAR ETA ASEGURU-ETXEAK

IMQ, Lagun Aro, ASISA, AEGON, Avant-Salud, ASEFA, DKV-Previsaa, Previsora Bilbaina, COSALUD, HNA

RADIOLOGIA MADINA
Toribio Etxebarria, 4-1 ez. 20600 EIBAR

(2 de Mayo kalea zena) Untzaga Plazaren, Ego-Gaineko autobus geltokiaren eta Corte Inglesaren alboan
Telefonoa: 943 20 28 57

MALLABIA 1962

Argazki honetan Santa Ageda egunean kantatzera irten ziren emakumeak agertzen dira, Trabaku Goikon atsedendaldia egin eta zerbait beroa hartu ondoren. Jesusita Azagirrek kontatzen duenez, orduen Mallabitik irten eta darian oinez ibiltzen ziren: Zengoitte, San Martin, Goita eta abar. Gehienetan busti-bustita bukatzen zutela dio. Bokadilloa ere eramaten zuten. Eta baserriren baten norbait hil bazen epe ertain batean, ez ziren bertan geratzen dolu bezala.



Bertan agertzen dira:

Tente: Cecilia Biritxinaga, Mari Tere Urkidi, Maria Luisa Uriarte, Ana Maria Mallabiabarrena, Mari Tere Abendibar, Mari Tere Biritxinaga, Rosita Zelaieta eta Martina Abendibar. Makurtuta: Mari Tere Astarloa, Brigida Pradera, Pacita Pradera, Mari Nieves Arriaga eta Jesusita Azagirre.

ERMUA 1950



Plazan, Txikuriko arbolen parean, dantzari aldratxoak. Gregorio Sta. Cruz, dantza-maisu ondarrutarra, taldeko erakusle izan zen sasoi baten. Joseba Idigoras ermuarra ere luzaroan izan zen bai neska zein mutilen maisu eta Mallabiko Gazte Alai taldekoei ere erakustez arduratzen zen. Tente, ezkerretik esku-mara: Luis Albizu, Agurtzane Salaberria, Begoña Izagirre, Begoña Areitioaurtena, Luisita Malkorra, Miren Areitioaurtena, M^a Jesus Areitioaurtena, Nerea Izarra, Begoña Telleria, Begoña Mallagarai eta Moises Gorosabel. Jarrita: M^a Ignacia Olañeta, M^a Carmen Albizu, Berta Yarza, Higinia Solozabal eta Luisita Vallejo.

Enter

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

Proba-Leku

Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Sarri entzuten da Ermuan aparkaleku gutxi daudela. Azken urteotan hainbat neurri hartu dira gai horrekin lotuta: txandakako aparkalekuak jarri, zamalan-gune berriak ordenatu, oinezkoentzako kaleak egin... Horietako erabaki batzuk, arazoa arindu dute eta beste batzuek larriagotu.

**Aparkaleku nahikoa dago Ermuan?
Zerbait egin beharko litzateke plaza gehiago egoteko?
Azkenaldian, gaizki aparkatzeagatik jarri diren multa kopuruak gora egin duela uste duzu?**



Oso aparkaleku gutxi daude eta zaila da lekua topatzea. Gainera, txandakako aparkalekuak ez dute arazoa konpontzen. Egia da, baina, herri honetan ez dagoela lursailik aparkaleku gehiago egiteko. Jendea, bestalde, oso adi egoten da udaltzainek isunik ez ipintzeko.

Pepe Martín, 53 urte



Gai arazotsua dela uste dut, baina ni trenean mugitzen naiz, zorionez. Valdespinako Markesa azpian dagoen parkinga txiki geratu da, eta gainera ordu jakin batzuetan erabili daiteke bakarrik. Lurrazpiko parking gehiago egitea da irtenbidea, gainontzeko espazioak nahiko beteta ikusten ditudalako.

Celina Ocón, 52 urte



Ez dago ia aparkalekurik eta zaila da lekua topatzea. Nik ez daukat arazorik, garajea dudalako, baina ez dutenek zailtasun handiak dituzte. Parking publikoak egin beharko ziren, baina ez dakit non. Bestalde, azkenaldian, udaltzainak oso adi daude, eta isun asko jartzen ari direla entzun dut.

Iratxe Alzaa, 32 urte



Aparkaleku justuak daude, behar beste; gehiago egin zezaketen, baina ez dakit non. Uste dut besteei botatzen diegula beti errua, baina konponbidea gure esku ere badago: kotxea horrenbeste ez erabiltzea, alegia. Bestalde, banatzailea naiz eta esan behar dut zamalan-guneek beste herri batzuetan baino hobeto funtzionatzen dutela hemen.

Imanol Álvarez, 48 urte



ZINEA**2tik 4ra****9tik 11ra****16tik 18ra****23tik 24ra****30etik 2ra**

Ermua Antzokian.
Hainbat film eta
ordutegi.

ZINE-KLUBA**Hilak 7****Hilak 14****Hilak 21****Hilak 28**

Ermua Antzokian.
Hainbat film.
20:30ean.

**UMEENTZAKO
ZINEA****Hilak 3****Hilak 10****Hilak 17****Hilak 24****Maiatzak 1**

Ermua Antzokian.
Hainbat film.
17:00etan.

MUSIKA**- Hilak 2:**

Abesbatzaren
kontzertua: La Cotorra
(Valladolid) abesbatza.
20:00etan.
Santiago elizan.

- Hilaren 8tik 10era:

Irulitxa txarangaren 20.
urteurrena: Kalejirak
eta kontzertuak asteburu
osoan zehar.

- Hilak 15:

Sweet California.
22:15ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 15€

- Hilak 22:

Kiko Veneno.
22:15ean. Ermua
Antzokian. Sarrera: 12€

- Hilak 24:

Dulzaineroen kalejira.
Gaztela-Leoneko eguna.
Goizez eta arratsaldez.
Erdi-guneko kaleetatik.

- Hilak 29:

Irakurketa musikatua
Anariren eskutik (plaza
mugatuak). 19:00etan.
Udal Liburutegian.

ANTZERKIA**- Hilak 8:**

"Etxekoak", Artedrama
konpainiaren eskutik.
22:15ean. Ermua
Antzokian. Sarrera: 10€

**- Hilak 29:**

"El florido pensil (niñas)",
Tanttaka Teatroaren
eskutik. 22:15ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 12€

**UMEENTZAKO
EKITALDIAK****- Hilak 23:**

Haurrentzako
ipuin-kontaketa.
17:30ean.
Udal Liburutegian.

DANTZA**- Hilak 16:**

Euskal Jaia: dantza
erakustaldia, plaza
dantza eta erromeria
19:00etan. Orbe
Kardinalaren plazan.

- Hilak 17:

Euskal Jaia: kalejirak
eta dantza erakustaldia.
Goizez eta arratsaldez.
Orbe Kardinalaren
plazan.

ERAKUSKETAK**- Hilaren 4tik 17ra:**

Margoa: Nagore
Telleria eta Juan
Ayestaren lanak.

- Hilaren 18tik 1era:

Margoa: Juan Manuel
Arrubarrenaren lanak.
Lobiano Kultur Gunean.
18:00etatik
20:00etara.

Patxi López

**TXINDURRI
TALDEA**
Tokian
tokiko

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA
IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

**Infreñu
Taberna**

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA

**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala

- Klarinetea
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

ermuan **bagara**



Maiatzaren 28an

“Ermuan Bagara” ekimenaren kanta:

**Menditxik ekarri gaur
Euskera geurera
Euri tanta bakotxarekin
Zabaldu daigun herrixan**

**Aitxa, aitxitxa, amama
Ama ta seme-alaba
Hator, hator gaur plazara
Gure jaixa ospatzera**

**Irrintzi eta algaraka
Gazte, agure eta atsoak
Txalo ta txalo artian
Ermuan Bagara**

**Bizi, pentsau, sentidu, ekin
Euskeran eskutik
Nahi dogu hazi**

**Sortu daigun
Bide luzia
Alkartu daiguzan
Mingainak dantzan**

**Ermuan bagara,
Ermuan bagara,
...
Gure hizkuntza delako,
Ermuan bagara!!**

OINAK LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

Irale
 Hertz Klinika - Clínica Dental
Leire Irazu Garitaonandia
 • Ortodontzia • Aho zirujia
 • Periodontzia • Implanteak
 • Odontologia orokorra
 Zeharkale 8, behe 943 17 71 34
 www.irale.com

fisioterapia
 eta osteopatia
 zentroa
aitziber
 Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89
 Sexto Centenario 13, behe
 48260 ERMUA (Bizkaia)

san pelayo
 clínica dental hertz klinika
 Implanteak
 Ortodontzia
 Periodontzia
 Hertz-zuriketa / Estetika dentala
 Odontologia orokorra
 Protesiak
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS
 San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

OSASUN GIDA

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA
 - Aho eta inplante kirurgia
 - Hortzetako protesiak
 - Hertz estetika
 - Ortodontzia
 - Odontopediatria
 - Endodontzia eta odontologia kontserbadorea
 Hertz klinika beritu eta handitu dugu
 San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
 Ermua niklinika@gmail.com

NATURA
 Cristina García Pérez
 Belar-denda eta dietetika
 · Elikagai biologikoak
 · Terapia naturalak
 · Naturopatarekin kontsultak
 · Masajeak
 · Dietistarekin kontsultak
 · Kosmetika biologikoa
 Zeharkale 12 behe esk. · ERMUA
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

Osasun gidan agertu nahi baduzu,
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera